

"Gaizki esanak barkatu"

Euskaldunon Egunkaria, 1992-02.

Bada euskara idatzian sarri erabiltzen den esaldi bat. Harritu egin nintzen lehen aldiz ikusi nuenean, eta ez naiz oraindik usadio horretara egin. Sekulakoak bota eta gero: "Gaizki esanak barkatu" erantsi, eta kito. Honek esan nahi du denbora izan duela idazleak gaizki esandakoaz damutzeko, baina hala ere bere barrua hustu eta hustutakoa bertan utzi egiten du; kristau dela erakutsiaz halere.

Eta ez faltsukeriaz, ezagutu baitu esaera honetaz baliatzen den gizaki zintzorik.

Kontzientzizko betebeharrak baten eraginak bultzatakoa balitz bezala.

Kontraesan honetara ezin ohitu nintzen, baina oraintxe bertan erori naiz bertan neroni; eta izenburuan jarri bezala uzten dut; atxakia batekin, halere: nire sarrerako bekatu honi komilak jarriko dizkiodala oraintxe!

Gaurko esanen hasiera, Juan Mari Atutxa, Eusko Jaurlaritzako Barne Kontseilari jaunak ETA-rentzako diru biltzen ari zen sare bat desegin du Donostian, in fraganti, argazki eta guzti, eta harrapatutakoen artean *Euskaldunon Egunkaria*-ko kazetari bat. Atutxa jauna lortutakoaz pozik egotea ulertzekoa da, beharkizuna bere baiari ongi bete duen saria da; eta prentsari berri ematerakoan geure lankidea aipatzea bidezko da noski, baina ez honen izenarekin batera bere komunikatu eta prentsako harremanetan behin eta berriz bere lantokiko *Egunkaria* aipatzea. Banketxe ezagun batekoa edo bere Barne Sailekoren bat suertatu izan balitz egingo ez zukeen moduan; Kongresuan egin zuen agerpenean ere numero heterogeneoak sumatzen ditu, denbora bateko estiloan; eta bertan laburpen modura dio gero: "Todo este proceso se realiza el mismo día 17 de diciembre de un martes, suponemos que fecha laboral en Egunkaria y Egin". Inplikazio lehiati hauek demokrazian egiteko eskubiderik ez dago, batez ere, egunkari euskaldunak bereak, eta ez kriminalak, diren sailtasunetatik pasatzen ari denean.

Gauzak honela, Kulturako Sailburuorde den Joxe Juan G. Txabarrik, *Argia* aldizkarian egiten dioten elkarrizketan, *Egunkaria*-ri dagozkion legezko diren irazkinetan aipatzen dituen *hipotesia* batzuen artean, balizko batzu egiten ditu, eta hauen artean ez denak arinak, ETA tarteko; hipotesian, noski, baina hemen ere, argitaratzen den denak nahasten dituzte batzuk, eta maliziarik gabe esandakoak ere garesti ordaintzen dira gaur egun.

Hara nola *Egunkaria*-ko zuzendari den Pello Zubiriak, asaldaturik, *Argia*-n bertan, erantzuten dion, "Txabarrin hipotesiak" izenburuko artikuluan, oso bero; geure lankidearen luma zorrotza ere egiatan nahi baino urrutirago joan da, eta hipotesiatik kanpo, familia ere ikutu duen irain pertsonal gogorretan sartu. Hau ez da *Egunkaria*-ren estiloa; ez dugu geuk salatzen ditugun portaera beretan erori nahi, eta denon egunkaria den honetan muga garbiak jarriak ditugunez, orain hau gaitzetsi nahi dugu. Ez geure alorrean, hemen, idatziak izan direlako, baina prentsan *Egunkaria*-ren zuzendariak firmatu dituelako; eta hau, ez Pello Zubiriarekin formalki baieztatu gabe, noski.

Niri eskatu didate betebeharrak hau egiteko, Administrazio Kontseiluak buru bezala, eta orain, lana amaitu dudanean, neuk ere beste euskaldun batzuk oihutera duten legez esan dezadan: "Eta gaizki esanak barkatu".